

Euskal AEko BPGk %-3,6ko murrizketa izan zuen 2009ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean %-1,0koa izan da murrizketa, urteko lehen hiruhilekoan baino bost hamarren gutxiago


Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGk %-3,6eko murrizketa izan du 2009ko bigarren hiruhilekoan, 2008ko aldi beraren aldean; aurreko hiruhilekoan baino puntu bat pasatxo gutxiago.

Hona hemen urte arteko beste tasa batzuk: Espainian %-4,2; Euro-16 eremuan %-4,7; 27-EBn %-4,8; AEBn %-3,9.

Hirugarren hiruhilekoz jarraian, aurreko hiruhilekoaren aldean %-1,0koa izan da murrizketa, aurreko hiruhilekoan baino bost hamarren gutxiago

Hiruhileko arteko aldakuntza hori %-1,1 izan da Espainiako ekonomian, %-0,2 27-EBn eta %-0,3 AEBn, kasu guztietan datuok hobeak dira aurreko hiruhilekoaren aldean.

1.grafikoa. BPG m / p. Urte arteko hazkunde tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-16 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

Sektore eskaintzaileen artean, industriak (%-10,0) eta eraikuntzak (%-5,2) izan dituzte murrizketarik handienak. Zerbitzuek urte arteko hazkunde negatiboa (%-0,5) izan dute. Lehen sektorea da hazkunde-tasa positiboak (%9,9) izan dituen bakarra.

Industrian, hirugarren hiruhilekoz jarraian, urte arteko eta hiruhileko arteko tasak negatiboak dira, baina hiruhilekoen artekoa (%-2,7) sei hamarrenez hobea da aurreko hiruhilekoan (%-3,3) baino.

Eraikuntzan bost hiruhilekotan negatiboak izan dira urte arteko eta hiruhilekoen arteko tasak; sektore honetan erorketa iraunkorragoa da industrian baino. Industrian bezala, hiruhilekoen arteko bilakaera negatiboa (%-0,6) izanik ere, aurreko hiruhilekoan (%-1,4) baino apalagoa da.

Zerbitzuetan, oro har, urte arteko %-0,5eko jaitsiera dago, bi osagaien jokaera bata ez bestea bezalakoa izan delarik. **Merkatuko Zerbitzuen** bilakaera negatiboa da bai urte artekoan (%-1,9), bai hiruhileko artean (%-0,1); **Ez-merkatuko zerbitzuek** eusten diote hazkundeari, urte arteko tasa %6,4 delarik; hauen jokaerak berebiziko garantiza du zerbitzuen sektoreen jarduera-mailan.

Lehen sektorean urte artekoa positiboa da (%9,9); arrantzan bilakaera hobea da nekazaritzan baino.

1. koadroa. BPG m / p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak (*) Euskal AE

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Nekazaritza eta arrantza	0,0	0,5	-1,2	-3,8	5,7	17,2	9,9
Industria	3,1	-0,5	0,4	0,0	-3,2	-8,6	-10,0
Eraikuntza	11,3	-1,1	-0,4	-1,4	-3,4	-4,8	-5,2
Zerbitzuak	4,1	3,5	3,6	3,6	2,8	0,5	-0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,8	1,8	3,2	0,9	-1,4	-3,6	-4,0
BPGda merkatuko preziotan	4,2	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6

(*) *Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak*

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Eskariaren aldetik, hiruhileko askotan zehar aurreneko aldiz, Barne eskariaren murrizketa (%-4,6) puntu batez negatiboagoa da BPGren murrizketa baino. Haren osagai nagusien –Kontsumo Pribatua eta Kapital Eraketa Gordinaren– bilakaera negatiboak funtsezkoak dira egoera azaltzekotan. Inportazioek eta esportazioek bilakaera negatiboak dituzte, baina kanpo-saldoaren ekarpen garbia positiboa da eta neurri batean Barne Eskariaren bilakaera negatiboa konpentsatzen du.

Osagaien arabera aztertuz gero, **Familia-etxeen azken kontsumoak (Kontsumo Pribatua)** bilakaera negatiboa du hirugarren hiruhilekoz jarraian, bai urte artean (%-4,6), bai hiru hileko artean (%-1,0).

Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo Publikoa) ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu publikoaren babesean, %3,7ko hazkundera izan du, aurreko hiruhilekoetako hazkundeari jarraituz.

2. koadroa. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak (*) Euskal AE

	2007	2008	2008			2009	
			II	III	IV	I	II
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	3,6	1,6	3,1	1,0	-1,4	-3,7	-4,6
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	6,4	4,8	4,4	5,3	4,1	4,5	3,7
Kapital-eraketa gordina	4,6	0,5	1,9	0,0	-2,5	-6,8	-9,1
Barne-eskaria	4,3	1,8	2,9	1,3	-0,9	-3,3	-4,6
Guztizko esportazioak	5,4	4,1	7,8	5,5	-2,2	-11,8	-16,4
Guztizko inportazioak	5,4	3,8	8,4	4,4	-3,9	-12,3	-17,0
BPGda merkatuko preziotan	4,2	1,9	2,3	1,9	0,3	-2,5	-3,6

(*) *Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak*
Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Kapital Eraketa Gordinak (Inbertsioa) izan du Barne Eskariaren alderdirik negatiboena, urte arteko jaitsiera %-9,1 izan delarik; arrazoiak eraikuntzaren bultzadaren eta ekipo-ondasunetan egindako inbertsioaren moteltzea izan dira. Hiruhilekoen arteko bilakaera ere negatiboa da (%-3,3).

Esportazioak guztira %-16,4 jaitsi dira eta **inportazioak** %-17,0; Kanpo-saldoak hobera egin du.

Langile okupatuen kopuruak behera egin du (%-4,0) 2008ko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta %-0,7 aurrekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoko batez bestekoaz zazpi mila enplegu inguru galdu dira eta aurreko urteko hiruhileko berberaz berrogeita bat mila inguru. Hiruhileko honetako enplegu-galera batez ere industrian gertatu da eta neurri apalago batean eraikuntzan.

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, 2009ko bigarren hiruhilekoan urte arteko jaitsierarik handiena Araban (%-4,1) izan da; Gipuzkoan (%-3,7) eta Bizkaian (%-3,5).

Ohar metodologikoa: 2007ko urteko behin-betiko datuak ekarri dira, eta 2008koak Euskal AEko Kontu ekonomikoen aurrerapena; honek guztiak 2007ko lehen hiruhilekotik aurrera aldaketak sorrarazi ditu hiruhilekoko serietan, zeinak 2009ko bigarren hiruhilekoko datuetara batu diren.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

+Tlf:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp